

“Noraezekoak izan dira, eta dira, Akademiak”

Xabier Kintana I
Euskaltzaindiko idazkaria

Hiru erakunde ilegal leloan,
eta legearen barruan oraino, aizue.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona



Euskaltzaindia euskaldun askoren buruhauste dela esango bagenu...

Pozik nengoke, baina euskaldun arrunten artean euskararekiko eta Akademiarekiko kezka ez dira, inondik ere, kezkarik handienak.

Euskara irakasle, ikasle eta abarrekoiei ez diegu galdetuko, badaezpada.

Badira batzuk uste dutenak euskaltzainok egunero arau eta erregela berri eta aldrebesak ematen saiatzen garela, jolasean bagenbiltza bezala. Hori ez da egia.

Baina euskalduna nahasi egiten du Euskaltzaindiak?

Ez da hori gure asmoa. Arauak ahalik eta argien ematen saiatzen gara. Euskaltzaindiak euskaldun jendearentzat egiten du lan, gure hizkuntzaren erabilera on eta jatorrari eutsiz, eta ez azken orduko erdarakadei.

Oinak lurtean dituen erakundea dugu, orduan.

Zalantzarik ez. Arau bat erabaki eta argitaratu baino lehen, Euskaltzaindiak lehengo eta oraingo autore garrantzitsuenen erabilerak aztertu eta gero hartzen ditu erabakiak, ez itsumustuan.

Bai hiztunari bizkar emanez?

Aurretiko hizkuntza idatziak mantentzen du forma idatziaren tradizioa. Munduko hizkuntza idatzi guztien oinarria da hori. Hizkuntza mintzatu hutsezko formak ere inoiz, erabat zilegi eta erabilgarriak dira, modu informala-goan.

Horrexegatik ari zarete fitxatzen idazleak.

Euskaltzain berriak izendatzeko irizpideari bazagozkio, idazleen merezimenduak beti izan dira eta gero ere izango dira ondo kontuan hartzekoak.

Jon Juaristirenak, esaterako.

Euskal kulturaren, hizkuntzaren eta literaturaren ezingo litzaioke deus ukatu, eta gustatuko litzaidake bera kritikatzeko dutenak euskal arloan berak adina balekitez.

Baina...

Baina edozein akademiatan, badira kontuan hartzeko beste ezaugarri batzuk: hizkuntzarekiko atxikimendua, jendarteko jarrera eta imajina, iritzien oreka... eta kontuan hartu ohi ditugu.

Ekin eta jarrai, hartara.

Hizkuntzaren arautzea eta batasuna ez dira bat-batean burutzen. Bestalde, eboluzioan eta egokitzearen dabilta hizkuntzak, eta beti izaten dira zalantzak. Hizkuntza bera hiltzen ez bada, ez dut ezagutzen ateak inoiz itxi dituen akademiarik.

Bai sekula ireki ez dituenik.

Bai. Dena den, kultura mailara eta ofizialtasunera heldu berri diren mintzairaren kasuan, noraezekoak, hau da, beharrezkoak izan dira, eta dira, Akademiak. Areago gurea bezalako herri anarkiko samar batean. ■

